

## Kirola

'Playground26' estalpeko skate gunea zabaldu dute Durangoko Aliendalde industrialdean > 16



## Greba mugagabea hasi dute Elorrioko Nanuk enpresako hainbat langilek > 3

%4ko jaitsiera ezarri diete soldatetan, eta aparteko lansari bi kendu dizkietela diote beharginak

Martitzenean prentsaurrekoan azaldu zuten, lan taldearen erdiak greba mugagabeari ekin zion astelehen gauean. Langileen arabera, lan erreformatik babestuko dituen hitzarmena negoziatzeko proposamena egin zioten enpresari abuztu hasie-

ran. Erantzunik ez dutenez jaso protesta egingo dute. Manifestaziorako deia egin zuten atzo arratsaldean, Elorrion. Lanean jarraitzen duten beharginak, berriz, kritiko agertu dira, eta enpresa-batzordean ez direla ordezkaturik sentitzen diote.



## Iheslariak itzulerari begira

Imanol Jaio, Jon Irazola eta Pako Aranburu Durangaldeko iheslariak 'Herria dugu arnas' ekimenaren berri eman dute. Bizimodu publikoa daukate Ipar Euskal Herrian. > 8



Hizkuntza Escuela Oficial  
Eskola Ofizial de Idiomas

### EPEA: Guztientzat

IRAILAREN 2tik 20ra, biak barne.  
Ekainean gauditu ez dutenek,  
irailaren 16tik 20ra.

## MATRIKULA OFIZIALA 2013-2014



**1.FASEA** - ONLINE. INTERNETez bakarrik [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net)

Irailaren 24an onartuen behin-behineko zerrenda. 30ean onartuen behin-betiko zerrenda. Ez onartuak 2. fasean sartuko dira, zuzenean.

Irailaren 30etik urriaren 3ko 15:00rak arte: ordaintzeko epea.

**2.FASEA** - ONLINE. INTERNETez bakarrik -EPEZ KANPOKO ESKARIAK.

Irailaren 21etik urriaren 10era: grazia deialdiak eta epez kanpoko eskariak.

Urriaren 14an: onartuen eta ez onartuen zerrendak:

1.faseko ez onartuak / grazia deialdiak / epez kanpoko eskariak.

Urriaren 14tik 18ko 15:00rak arte: ordaintzeko epea.

**3.FASEA** - Urriaren 24an, geratzen diren plazen banaketa - HIZKUNTZA ESKOLAN BERTAN.

Alemana 10:00etan / euskara 12:00etan / frantsesa 16:00etan / ingelesa 18:00etan.

Zubiaurrea, 1 (Durango) - Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42 - [www.eoidurango.net](http://www.eoidurango.net)

### Mallabia > 6

500.000 euro bideratuko dituzte zazpi inbertsio finantzatzeko

### Durango > 3

Euskotrenek urteko bonua murriztu izana salatu dute

### Mañaria > 6

Hiri antolamendu plana herritarren parte-hartzeagaz

### Abadiño > 4

Astelehenerako eskolako obrak amaitzea espero du udalak



# Herririk herri

> DURANGO

## Euskotrenek urteko bonua murriztu izana salatu dute

26 urtetik beherakoek urteko bonuagaz 388 euro ordaintzen zuten; hilabeteka ordainduta, orain, urtero 539,80 euro ordaindu behar dituztela diote



> JONE GUENETXEA

Tren erabiltzaile batzuek erreklamazioa jarri dute Euskotrenek Durangon duen bulegoan. Kexu dira konpainiak urteko bonua kendu duela-eta. Bizkai-ko erabiltzaileen bederatzi erreklamazio jaso dituzte.

Bonua desagertzean egunero bidaiatzen dutenek ordaindu behar duten kopurua nabarmen igo dela dio ikasle baten amak: "Iazko irailean, Durangotik Bil-

26 urtetik beherako gazteek 150 euro gehiago ordaindu behar dituzte hilabeteroko bonuekin

bora trenez joateko, 388 euroan erosi zuen urteko bonua nire alabak. Aurten, bonu hori desagertu eta hileko bonuak jarri dituzte, beraz, 26 urtetik beherakoek hileko 44,15 euro ordaindu behar dituzte. Hau da, 539,80 euro urteko". Urte batetik bestera, egunero trena hartu behar duten 26 urtetik beherako gazteek 150 euro gehiago ordaindu behar dituzte bonuekin hilabetero-hilabetero.

Euskotrenek jakitera eman duenez, "Gipuzkoan Mugi eta Lurraldebus, eta Bizkaian Barik txartelen tarifa koordinazio sistema berrian sartzearen ondorio da" urteko bonuaren desagertzea. "Konpainiak, sistema horiek bultzatu dituzten era-

kundeekin batera, bidaiatzaile bakarra bultzatzeko lurralde politikatara egokitzeko konpromisoa hartu du". Helburua bonu sistema murriztea eta sin-

Helburua bonuen sistema murriztea eta sinplifikatzea izan dela azaldu du Euskotrenek

plifikatzea izan dela dio Euskotrenek. Gogoratu dutenez, Barik txartela "diru zorro" bezala erabili daiteke, eta urteko bonua, aldiz, urte osorako kontratatzen zen, "erabili zein ez erabili".

## Asier Aginako presoaren senideak zaurituta, istripuan

Aranjuezeko kartzelara bisitan zihoazen senide bik lepoko eta gerrialdeko lesioak eduki dituzte

> A. B. / M. O.

Asier Aginako preso durangarraren ama eta lehengusinak auto istripua eduki zuten astelehenean, Aranjuezeko (Espainia) kartzelara bera bisitatzerantz zihoazela. Guadalix de la Sierra udalerraren parean gertatu zen ezbeharrak. Errepidearen estugune batean lur orotako ibilgailu batek atzetik jo, eta bidetik atera ziren. Erietxera eroan zituzten biak; lepoko eta gerrialdeko lesioak dauzkate. Euren autoak kalte handiak izan zituen.

Etxerategi sakabanaketan oinarritutako espetze politika amaitzea, eta presoaren nahiz euren senideen eskubideak errespetatzea eskatu du.

**Martitegiri, 7 urteko zigorra**  
Bestalde, Parisko Auzitegiak zazpi urteko kartzela zigorra ezarri dio Jurdan Martitegi durangarrari, ETArek aparatatu militarrean ardurak egotzita. 2009ko apirilean atxilotu zuten, eta aurten, zortzi urteko beste zigor bat ere jaso du.

> IURRETA

## Kofradien Batzordeak antolatuta egun osoko jaia edukiko dute, etzi

XL. Kofradi Eguna ospatuko dute domekan Laixiarren; urteko batzarra egingo dute San Marko, Fauste, Santa Maña, Orozketa, Goiuri eta Iurretako kofradiek

> AITZIBER BASAURI

Iraileko bigarren domeka urteko diru kontuen berri emateko eguna izaten dute Iurretako kofradiek. Laixiarren elkartzen dira horretarako, eta hala egingo dute aurten ere. Gainera, Kofradien Batzar Orokorra egiteko egun hori, herritar asko batzen dituen jai egun bihurtu da urteko urtera.

Mezagaz hasiko dute XL. Kofradi Eguna. Kofradien Batzar Orokorra egingo dute gero herriko sei kofradiek: San Marko,

## Jaurlaritzak esandakoa gezurtatu dute larrialdietan

Arazoa ez dela konpondu adierazi dute beharginek, eta larrialdietako egoerak berdin jarraitzen duela

> MARKEL ONAINDIA

"Egoerak berdin jarraitzen du". Hori adierazi dute Landakoko larrialdietako -arreta jarraiturako gunea- beharginek. Eta berdin jarraitze horrek euren egoera txarragoa sortzen diela salatu dute. Horrela, Eusko Jaurlaritzak duela aste batzuk esandakoa gezurtatu gura izan dute: arazoa konpondu dela. Gainera, hedabide batzuetan agertu denaren kontra, obrak Landakoko anbulatorioan egingo direla diote, ez larrialdi zerbitzuetan.

Arazoa ez da soilik berena: "Guri ez digute kasurik egiten, baina jendearenekin ez". Izan ere, sinadura bilketa egin dute euren eskaeren harira atxikimendua jasotzeko. Beharginek protestak hasi zituztenetik esan izan dute azken finean herritarrak direla kaltetuak, zentroko lan baldin-

tzak direnak izanik, zerbitzuan eragin ahal duelako. Besteak beste, erizain bakarra daukate mediku birentzat. Lehenengo, erizaina mediku batez bitartekari irteetan, zentroa erizain barik zegoela kritikatu zuten. Gero, maiatzean, erizain barik irteetako agindua jaso zuten. Etxean egoetan erizainaren beharra ikusiz gero, orduan deitzeko esan zieten. Baina, egoera gaitzak sortzen ei ditu horrek: "Aurreko astean, irteera batean, urgentzia emergentzia bihurtu zen", eta gaixoa gutxiatik ez ei zen hil. Egoera medikuaren esperientziari esker konpondu zela esan dute.

Bestalde, alderdi politikoekin ere ez dira oso gustura agertu: "Udaletatik politika hutsa egiten dute". Uda aurretik euren eskaerak babesteko mozioak eztabaibatu zituzten udaletan, PSE-EEK aurkeztuta.



Fauste, Santa Maña, Orozketa, Goiuri eta Iurretak; ekitaldi hori amaitzerakoan herriko dantzari eta bertsolarien txanda izango da. Mikel Deuna dantza taldeko dantzariak sanmigele-

Dantzariak eta bertsolariak ere izango dira goizean; arratsaldean, berriz, umeen jolasak eta erromeria

tarako entseguen hasiko dira horrela.

**Bazkaria eta erromeria**

Bakoitzak etxetik eroandako jatekoagaz eta edatekoagaz mahaia bete, eta anai arteko bazkaria egingo dute Laixiar zelaira bertaratuko diren iurretarek. Arratsalderako ere prestatu du ekitaldirik Iurretako Kofradien Batzordeak. Umeentzako jolasak egongo dira, eta jai giroa berotzeko erromeria ere bai.

**> ELORRIO****Nanukeko hainbat langilek mugabako greba hasi dute**

Besteak beste, hitzarmena negoziatzea gura dute

**> MARKEL ONAINDIA**

“Transportes Nanukeko langileok ez genuen greba mugagabe hau egin nahi, baina gure eskubideen etengabeko zapalketak horretara behartu gaitu”. Berba horiek erabili zituzten enpresa batzordeko kideek –LABek lau ordezkari eta ELAk bat– martitzen goizean eskaintako prentsaurrekoan. Azaldu zuten, lan talde erdiak ekin zion grebari astelehen gauean, 00:00etan. Langileen arabera, lan erreformatik babestuko dituen hitzarmena negoziatzeko proposamena egin zieten enpresari abuztu hasieran. Baina erantzunik jaso ez, eta protesta eratu dute.

Baina, akordio zabalagoa gura dute. Izan ere, %4ko jaitsiera ezarri diete soldatetan, eta aparteko lansari bi ere kendu dizkiete. Beharginek gogoratu

dute, soldata jaitsiera epaitegian salatu zutela, eta arrazoi eman zietela. Egoera ez da aldatu, ordea, eta uztailean berriro epaiketa eduki zuten. Enpresak krisia sufritu duela ez dute zantzaz jartzen, baina gestioagaz ez daude ados: “Guri kendutako diruagaz hamabi kamioi berri erosi dituzte”. Eta diru hori bueltatzea eskatu dute.

**Behargin bat kalera**

Gainera, badaukate beste eskaera bat: joan zen barikuan kaleratutako behargina berriro onartzea. Greba deituta zegoen ordurako. “Bazekiten grebalaria izango zela. Hitzarmenaren proposamenari emandako erantzuna da”, bota zuen batek.

Nanukek Eroskirentzat egin du ia lan guztia, eta martitzen bertako zentrolean sartzen



ahalegindu ziren grebalaria. Susmoa zeukaten Eroskik beste enpresa batzuk azpikontratatu dituela euren utzitako hutsunea betetzeko. Horregatik, euren greba eskubidea errespetatzeko

%4ko jaitsiera ezarri diete soldatetan, eta aparteko lansari bi ere kendu dizkiete

eskatu zioten. Arduradunek ez zieten utzi barrura sartzen.

**“Ezin luxurik hartu”**

Enpresako gerenteak adierazi du, beharginek lan erreforma alboratzea eskatu dietela, eta hori ezin dutela onartu: “Ezin dugu horrelako luxurik hartu; enpresaren osasuna lehenetsi behar dugu”. Bere arabera, 98tik 32 daude greban, eta gainerako batzuek bajak eskatu dituzte, “jasandako presioengatik”. Presio horiek salatu dituz-

te greba egin ez duten behargin batzuek, “bai lan esparruan, bai esparru pertsonalean”. Grebalariek, ostera, grebarik ez egiteko enpresak presionatu egin dituela esan dute. Lanean daudenak grebagaz kritikoa agertu dira, eta esan dute ez direla ordezkaturik sentitzen enpresa batzordean. Beharrez greban baino gehiago daudela adierazi dute. Euren arabera, hitzarmen proposamena aurkeztu baino lehenagotik ezarritako zegoen greba deialdia.

**Sukalkia eta Elkartasun Eguna, jaien azken txanpan**

Munduko kulturak gonbidatu dituzte domekarako

**> M. O.**

Ferixa Nausikoetako bigarren asteburuan murgilduko dira gaur elorriarrak. Jaietako azken txanpa izango da: Sukalki Eguna, bertsolariak, kontzertuak, Elkartasun Eguna... Joan zen asteburuan eguraldi ona eduki

zuten, baina oraingoan euria dago iragarrita, eta biharko sukalkia prestatzeko aterpea ipini gura izan dute, badaezpada. Hori azaldu du Fernando Azkarate zinegotziak.

Kainabera GKEak antolatzen duen Elkartasun Eguna plazako

frontoian ospatuko dute domekan. Herriko hamabi kulturak gonbidatu dituzte: Bereber edo amazigh herria, Uzbekistan, Portugal, Ekuador, Bolivia, Nikaragua, Kolonbia, Venezuela, Senegal, Mali, India eta Euskal Herria. Horien guztien gastronomia dastatzeko aukera egongo da 10:00etatik eguerdira bitartean. Jasotako dirua Bizkaiko Elikagai Bankura bideratuko dute.

**2.000 lagun astelehenean**

Azkaratek esan du ez dutela oraindino joan zen asteburuko balorazio ofizialik egin, baina lehenengo sentsazioen arabera oso ona dela. Astelehenean, Koadrilen Eguneko bazkarian, 2.000 lagun bueltan batu ziren. Birziklatzearen aldeko azoka “ustekabea” izan zen, harrera onagatik.

Bestalde, domekako ferian “jendetza itzela” elkartu zen, Azkarateren arabera. Datorren urtean, produktore gehiagori lekua egin, eta azoka handitzeko asmoa daukate, aurten hainbat kanpoan geratu dira-eta.

**> ATXONDO****Karrantzara txangoa egingo dute hilaren 21ean**

Anbotoko Dama jubilatuen elkarteak antolatu du irteera; Pozalagua koba ere bisitatuko dute

**J. D.**

Anbotoko Dama jubilatuen elkarteak Karrantzara irteera antolatu du irailaren 21erako. Goizean Pozalagua kobazulo ezagunera joango dira. Txangoan parte hartu gura duenak irailaren 16a baino lehen eman behar du izena jubilatuen elkartearen bertan. Bazkide direnentzako 25 euro izango da txangoaren kostua, eta bazkide ez direnentzako, berriz, 28 euro. Autobusa 08:15ean irtengo da Arrazolatik; bost minutu geroago Axpetik igaroko da eta 08:30 inguruan Apatatik.

Pozalagua kobazuloa Armañongo parke naturalean kokatuta dago. Kobazuloa ezaguna da bertako barrunbe batean

(Versalles izenekoa) dagoen estalaktita exzentriko kopurua-rengatik. Exzentrikoak urak milaka urtetan sortu dituen irudi bitxi eta bereziak dira, oso ikusgarriak.

Kobazuloa bisitatu ondoren, 14:00 inguruan, Garras jatetxean bazkalduko dute eta, ondoren, Atxondora bueltatu aurretik, arratsaldea Laredon emango dute.

Txangorako izen-ematea irailaren 16a baino lehen egin behar da jubilatuen etxean

Astialdi eta suspertze soziokulturaleko

**IKASTAROAK** > Matrikulazio epea irailaren 2tik 30era**IKASTARO LUZEAK**

- ASTIALDIKO BEGIRALE IKASTAROA
- ASTIALDIKO ZUZENDARI IKASTAROA
- JENDARTE KULTUR DINAMIZATZAILEA
- HEZKIDETZAN ADITUA
- NOLA SUSTATU PARTE-HARTZEA?

- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ASTIALDIAN
- HEZIKETA PREMIA BEREZIAK ETA SEXUALITATEA
- KULTURARTEKO HEZKUNTZAREN HASTAPENAK

Bizkaiko **Urtxintxa Eskola**

Bizkaiko Urtxintxa Eskola. Zabalbide 26, 48006 BILBO • T: 94 432 0445

**IKASTARO LABURRAK**

- Zer behar dute adimen gaitasun handiko pertsonak?
- Balioetan hezteko jolasak
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Garapenerako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Komunikazioaren oinarriak
- Barreterapia

urtxintxaeskola.org



**> ABADIÑO**

## Astelehenerako Zelaieta eskolako obrak amaitzea espero dute

Eusko Jaurlaritzak udan eskolan egin dituen obrak amaitu ez dituztenez, astelehenera atzeratu behar izan dute Zelaietan, ikasturtearen hasiera

**> ITSASO ESTEBAN**

Gaur hasi behar zuten 2013-2014 ikasturtea Abadiñoko Zelaieta eskolan: gaur ziren ikasturte berriaren aurkezpena egitekoak. Baina, besteak beste, eskolako jantokia edo gimnasioa handitzeko Eusko Jaurlaritzak udan egin dituen obrak amaitu ez dituztenez, astelehenera atzeratu dute ikasturte hasiera. Horrela jakinarazi diete asteen, eskolako umeen gurasoei.

Gobernu taldeak azaldu duenez, lanak astelehenerako amaitzeko, langile gehiago dabil azken egunotan Zelaietako eskolako obretan lan egiten, eta asteburuan ere lan egingo dute. "Jaurlaritzak gimnasioko, jantokiko, saskibaloi zelaiako eta ikasgeletako lanak asteen amaitzea aurreikusten du" Abadiño-

ko Udalak, horrela, "ikasturtea astelehenera hasi ahal izateko".

Gobernu taldeak ohar batean azaldu duenez, udan hainbat aldiz bildu dira udal ordezkariak Eusko Jaurlaritzaren eta obrak egin

Lanak astelehenerako amaitzeko, langile gehiago dabil azken egunotan eskolako obran lanean

Udan hainbat aldiz bildu da udala Eusko Jaurlaritzagaz eta obra burutu duen enpresagaz

dituen enpresagaz, "ikasturtea normaltasunez hasi ahal izateko, lanak aurrez ezarritako epearen barruan amaitu ditzatela eskatzeko". Izan ere, lanak atzeratuz gero, "obrak eskolako ordutegiari eragingo liokeelako, epea betetzea behar-beharrezkoa" dela azpimarratu du Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak.

Zelaieta eskolako jantokian leku arazo larriak izan dira azken urteetan: txiki geratu da azpiegitura, eta Abadiñoko Udaleko hiru alderdiak ados egon dira obra hau lehenbailehen egin beharraz.

Lanak amaitzerakoan, Haur eta Lehen Hezkuntzarako eraikin berriak atontzeko abuztuan udalak abiatu zuen obrarekin jarraituko dute. Lan horiek kurtsoa hasi eta gero egingo dituzte.



## Datorren zapatara arte, jaiak Muntzaratzen

Gaur, 19:00etan ipiniko dute Donien-atxa, eta bihar eta etzirako ere jai egitarau zabala prestatu dute

**> I.E.**

Gaur iluntzean hasiko dituzte Muntzaratz auzoko jaiak: Donien-atxa altxatu ostean, ardi txakurren erakusketa, Kalitatea Fundazioaren laguntzagaz antolatutako parrillada eta DJaren emanaldia izango dira. Bihar eta etzirako ere goiz, arratsalde eta gauerako ekitaldiak antolatu dituzte Muntzaratzeko jaietan.

Jaietako egun nagusia bihar ospatuko dute; mozerro eguna antolatu dute, eta jantzirik onena aukeratzeko lehiaketa egingo dute, besteak beste.

Umeentzako askotariko ekitaldiak ere izango dira bihar goizean zein arratsaldean: buruhandiak ibiliko dira 11:00etatik auzotik, eta puzgarriak eta tailerrak ere egongo dira.

Gainera, paella eta tortilla lehiaketa ere egingo dituzte bihar. Bazkalostean, mus eta tute txapelketak jokatu dituzte, eta dantzaldiagaz biribilduko dute jai-egun nagusia.

Jaietako egun nagusia bihar ospatuko dute; mozerro eguna antolatu dute, eta jantzirik onena aukeratzeko dute

Domeka goizean ere edonork gozatzeko moduko ekitaldiak izango dira Muntzaratzeko jaietan; 14:30ean herri bazkaria egingo dute, ludoteka eta disko-teketa txikia atonduko dituzte, eta 19:00etan, txokolatadagaz amaituko dituzte jaiak.

**> OTXANDIO**

## Otxandiarrek urteroko bisita egingo dute Leintz Gatzagara

08:00etan irtengo dira plazatik; bazkaritarako mahai eta aulkiak gatzagarrek atonduko dizkiete

**> JOSEBA DERTEANO**

Urteroko ohiturari eutsiz, Otxandio eta Leintz Gatzaga banatzen dituzten 15 kilometroak oinez egingo dituzte otxandiarrek domeka honetan. 08:00etan ipini dute hitzordua Plaza Nagusian. Dorletako Amabirginaren baselizan meza entzun ondoren, eguerdian ongietorria egingo diete gatzagarrek. Egunotan jaiak ospatzen ari dira. Urtero legez, pilotalekuan mahaiak eta aulkiak prest izango dituzte nork bere etxetik ekarritako bazkaria jateko.

Antza denez, ohitura honen sorburua honako hau da: sasoi batean Leintz Gatzagak ez zuen musika bandarik, eta Otxandio-koa gonbidatzen zuten herriko jaiak alaitu zitzen. Musika ban-

dak oinez egiten zituen herri bien arteko kilometroak. Urtea joan eta urtea etorri, herritarren artean bidelagun berriak aurkitu zituzten, bazkaria zorroan hartu, eta Leintz Gatzagaraino joateko prest zeudenak. Ohitura horrek gaur egun ere badirau.

Leintz Gatzagak sasoi batean ez zuen musika bandarik, eta Otxandio-koa gonbidatzen zuten

Aurten egun hori asteburuan denez, etzi, herritar dezente batzea espero da. Oinez doazenen eta kotxez doazenen artean 150-200 lagun batu izan dira Leintz Gatzagan bazkaritara.

**> GARAI**

## Zubiaurretarren erakusketa ez dute kenduko

**> M. O.**

Garaiko Udalak eta Gerediaga Elkarteak Zubiaurre anaiak egindako argazki erakusketa antolatu zuten udan. Berez, joan zen astean amaitu zen epea, baina luzatzea erabaki dute, izan duen harrera ona ikusita. Margolariak ziren Ramon eta Valentin Zubiaurre, baina argazkigintzan ere egin zuten lanen bat edo beste. Horien artean, XX. mende hasieran Garain atera zituzten argazki batzuk, aurrez margolanerako erabilitako jendeari egindakoak. Hainbat eraikinetatik eskegita, hamabi argazkigaz osatu dute erakusketa.

Kultura mailan ospea lortutako familia izan zen Zubiaurretarrrena. Garaiko herriak eurgaz lotutako ekintzak garatzen jarraituko du. Esate baterako, azaroan kaleko pintura lehiaketa bat egingo dute.

# ZUZKETA

ETXEBARRI JATETXEAN 2  
LAGUNENTZAT DASTATZEKO  
MENUA (EDARIAK BARNE)  
ETA AKEBASO JATETXEAN BI  
LAGUNENTZAKO AFARIA.

Hurrengo txartela zure datuekin bete eta Gerediaga Elkarteak eta Dendak Bai-antolatuko duten Gazta Azokara (Andra Mariko elizpean, goizez) zein Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketara (Axpen, arratsalde) eraman.

**IZENA** \_\_\_\_\_

**E-MAIL** \_\_\_\_\_

**HERRIA** \_\_\_\_\_

15/1990 Lehi eta 14/2002 Lagunentzakoak jantoki, jantokietan ibazteko zure datuak Gerediaga Elkarteak eta Dendak Bai-antolatuko duten gaztaren jantokietan eta txakur txapelketan erabiltzeko erabiltzeko dute. Zure datuak ez dira salduko eta ez dira erabiltzen beste inon ere. Gerediaga Elkarteak eta Dendak Bai-antolatuko duten informazioa zure postu elektronikoan bidaltzen.

Ez dute buruzko informazioa Gerediaga Elkarteak eta Dendak Bai-antolatuko duten informazioa zure postu elektronikoan bidaltzen.

2013

ardi jaia

IRAILAK 14



# AUTO BAT EROSI NAHI DUZU?



EDO



AUKERAN?

## “BAI, NAHI DUT”



**Baiezkoa eman aurretik bidali email bat:**

[siquierounford@gmail.com](mailto:siquierounford@gmail.com) edo [siquierounpeugeot@gmail.com](mailto:siquierounpeugeot@gmail.com)

ESAIGUZU ZER NAHI DUZUN, NOIZ, ZENBAT GASTATU NAHI DUZUN...

# ez zara damutuko!

PEUGEOT 208. 2013ko AUTOMATIKULATUTAKOEN LIKIDAZIO OSOA. Hainbat arrazoi izan dira Peugeot 208a aukeratzeko: bere motorrak, bere erabilgarritasun handiko ukimen-pantaila, bolante trinko eskusiboa, azken generazioko motorrak eta Stop&Start teknologia. Eta horri guztiari, 205, 206 eta 207 autoen txapeldun izaera gehituta, 2013ko ABC Autorik Onena bihurtu da Peugeot 208.

**Gainera, hilabete honetan AUTOMATRIKULATUTAKOen LIKIDAZIO OSOA**

**FORD KONDIA  
PEUGEOT ETORMOBIL**

Otaola etorb. - 20600 Eibar  
Tel.: 94 320 76 50 (Ford)  
Tel.: 94 320 09 66 (Peugeot)



Grupo Kondia

**ZIORLA AUTOAK**

Santamaña kalea, 19  
48215 Iurreta  
Tel.: 94 621 71 30

[www.fordkondia.com](http://www.fordkondia.com) - [www.etormobil.com](http://www.etormobil.com)



**> MAÑARIA**

# 'Alkarregaz': etorkizuneko Mañaria antolatzeko prozesua

Herritarren partaidetzagaz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzen hasiko dira; irailaren 19an egingo dute prozesuko lehenengo tailerra

**> MARKEL ONAINDIA**

Mañariko Udalak *Alkarregaz* izeneko partaidetza prozesua aurkeztu du. Horren bidez, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzen hasiko dira, datozen urteetarako herria zelan eraiki eta antolatu erabakitzeke. Hori, hirigintza, ekonomia, gizarte eta kultur ikuspegitik. Bide horretan, herritarrek hausnarketa eta ideia berrien parte izatea gura dute udal ordezkariak. Endika Jaio alkatea (Bildu) eta Jabier Arteaga zinegotziak (EAJ) eman dituzte azalpenak; alderdi biek ere elkar hartu dute egitasmoan, beraz.

Irailaren 19an hasiko da prozesua. Udalak kontratatutako talde tekniko batek gidatuko du, eta bost tailer egingo dituzte. Lehe-

nengoan prozesua bera azalduko dute. Hurrengoetan, diagnostikoa, balorazio mapa, lurren azterketa eta proposamenen tailerra egingo dituzte. Jaiok azaldu du tailer dinamikoak izango direla, eta denbora muga ere edukiko dutela. Ulergarriak izango direla ere azpimarratu gura izan du. Herritarrei luzatutako dei horretan indar berezia egin dute ordezkariak. "Gure diagnostikoa egin dugu barruan, baina denon iritzia jakin gura dugu", esan du Jaiok. Arteagak, hari beretik: "Zenbat eta jende gehiagok parte hartu aberatsagoa izango da".

Interes orokorreko hausnarketan adin guztietako herritarrek parte hartzea gura dute, baita umeeke ere. Uste dute umeen ikuspegia eta irudimena baliagarriak

izan ahal direla prozesuan. Horregatik, 19an saio berezi bat egingo dute eurekin, 18:00etan.

Industria, energia, ekipamenduak... Arloka sortutako ideiekin, planaren aurrerapena idatziko dute. Gero, plan definitiboa landuko dute, baina ez dakite noiz; udal aurrekontuen arabera izango da. Gainera, Aldundiaren zein Jaurlaritzaren arauen galbahea ere pasa beharko du.

**TAILERREN DATAK**

**IRAILAK 19** - Aurkezpena.  
**URRIAK 3** - Diagnostikoa.  
**URRIAK 24** - Balorazio mapa.  
**AZAROAK 14** - Lurraz aztertu.  
**ABENDUAK 12** - Proposatuta.

\* Guztiak 19:00etan.



Javier Arteaga (EAJ) eta Endika Jaio, alkatea (Bildu).

**> MALLABIA**

## AEK-k eta udalak hitzarmena sinatu dute

Helduen euskalduntze eta alfabetatze arloa garatzeko oinarriak finkatu gura dituzte

**> J.G.**

Lau urterako hitzarmena sinatu du udalak AEK-rekin. Euskaltegiak aurrera daraman lana bultzatzea eta laguntzea da helburua, Mallabiko biztanle-

ria heldua euskalduntzeko eta alfabetatzeko. Azaldu dutenez, helduen euskalduntze-alfabetze lana "funtsezkoa" da: "Helduok euskara ikasi, egin eta eginarazi gabe ez dago gazteen eta hau

rren artean hizkuntza erabilpenen aurrerapauso kuantitatibo eta kualitatiborik ematerik".

**Hamarkada bi**

Ermuko Kaltxango euskaltegi-ko irakasleak duela 20 urte hasi ziren Mallabian eskolak ematen. "Hasieran eliza gaineko lokalatan ematen genituen eskolak, eta gaur egun kultur etxean". Iaz, 14 pertsona joan ziren Mallabiko euskaltegira euskara ikastera. Beste hainbat mallabiar Ermuko euskaltegira ere joaten direla azaldu dute Kaltxangoko arduradunek. Udalak 2013-2014 ikasturtean euskara ikastaroak egiteagatik diru-laguntzak emango ditu, eta eskaerak Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira matrikula egin eta ondorengo hilabetearren barruan.

Irailaren 24ra arte eman daiteke izena euskaltegian. Etorkin zein jubilatuentzako ikastaro bereziak emateaz gainera, Euskaltzaindiaren arauak azaldu eta IVAP-Irale Osakidetzako tituluak ateratzen lagunduko dute.

**> IZURTZA**

## Bertso saioa eta erromeria jaietako bigarren asteburuan

**> JOSEBA DERTEANO**

Jaiei agur esan aurretik, ekitaldiz betetako bigarren asteburua dute aurretik izurtzarrek. Bihar, 12:30ean, Santo Tomas eguna ospatzeko, bertso saio interesgarria antolatu dute mezaren eta dantza saioaren ostean: Garikoitz Sarriugarte, Eñaut Uruburu eta Aitor Bizkarra ariko dira ber-

tsotan. 16:30ean, aldiz, urteroko mendi bizikleta martxari ekingo diote. Gauean, afari herrikoia-ri jarraipena emanez, Luhartz taldeak erromeria eskaniko du. Domekan, umeak izango dira ekintzen erdigune: Kiki eta Koko pailazoak izango dira 17:30ean eta, ondoren, tailerrak, Etxetorreko gazteek gidatuta.



Mila Mondragon alkatea eta Mertxe Mujika AEK-ko arduraduna sinaduran.



Joan zen domekan Santa Ageda ermitan eskaini zuten dantza saioa.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK  
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga 19, behea - 946 816 673 - lurreta  
[www.zarateylexpe.com](http://www.zarateylexpe.com)

**GAER** **DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 94 622 57 74 / 658 75 72 79 - BERRIZ



**> DURANGALDEA ASTEON****Ehiza baimenak eskuragarri Mañarian eta Izurtzan**

Saibigain-Iturriotz eta Bitañoko pase-lerroetako baimenak eskuratzeko aukera dagoela jakinarazi du Mugarra ateneo zinegetikoak. Baimen horiek irailaren 19ra arte eskuratu ahalko dira Mañariko Herriko Tabernan, Mañariko Nagusien Etxean eta Izurtzako Antonio Txiki okindegian.

**Euskara ikasleek diru-laguntza eskatu dezakete Abadiñon**

Joan den ikasturtean euskara ikasten jardun duten abadiñarrek diru-laguntza eskatu ahalko dute irailaren 30era arte, Errota kultur etxean edo Mediatekan. Gutxienez ikastaroko saioen %80ra joan izana eskatzen du udalak diru-laguntza jaso ahal izateko. Iaz 43 abadiñarrek jaso zuten diru-laguntza.

**Berbalagun eta euskara eskolak prest Zaldibarren**

Maila guztietarako euskara ikastaroak, autoikaskuntza, HABEren azterketa ofizialak prestatzeko saioak, Internet bidezkoak, guraso taldeei zuzendutako saioak, Berbalagun... Euskara ikasi gura dutenentzat hainbat aukera prestatu dituzte Zaldibarko udalak eta AEK-k. Irailaren 20ra arte eman ahalko da izena udalaren Euskara zerbitzuan edo AEK-n.

**Garaiko jaietako errifa 3.083 zenbakiak irabazi du**

Eneko Txintxurretak irabazi du Garaiko jaietan urtero egiten duten errifaren zozketa. 3.083 zenbakiagaz lortu du errifaren saria. Baserriko produktuekin betetako otzara bat irabazi du Txintxurretak. Oiz Egin egitasmoan parte hartzen duten baserriarren produktuak izan dira.

**> BERRIZ****1937ko filmak ikusgai Irailaren 11 dela eta**

Kolpistek aginduta fusilatutakoak, eta, oro har, frankismoaren biktimak gogoratuko dituzte

**> AMAIA UGALDE**

Datorren eguaztenean 76 urte beteko dira Felipe Urriaga, Berrizko alkatea, eta Jose Agirre, guardia, fusilatu zituztela. Azken urteotan, irailaren 11 frankismoaren biktimei gorazarre egiteko egun bihurtu da Berrizen, eta eguaztenean ere horrela izango da. Lore eskaintza eta omenaldiaz gainera, iluntzean 1937an filmatutako bost dokumental proiektatuko dituzte.

Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarteak eta Berrizko Uda-

lak antolatu dituzte eguazteneko ekitaldiak. 18:00etan hasiko dute omenaldia Urriaga plazan. Musika, poesia eta lore eskaintza egingo diete frankismoaren biktima izan ziren berriztarrei.

Besteak beste, Gemikako bonbardaketa eta osteko erbesteratzea ardatz dituen filma ikusi ahalko da



Iazko irailaren 11n egindako lore eskaintza.

Arratsaldeko 19:00ak aldera proiektatuko dituzte dokumentalak Kultur Etxean. Besteak beste, Gernikako bonbardaketa eta osteko erbesteratzea ardatz dituen *Guernika* filma ikusi ahalko da. Euzkadiko Gobernu-

ko Propaganda sailak ekoiztutako beste lan labur bi ere egongo dira ikusgai, eta frankistek grabatutako bi dokumental ere eskainiko dituzte: *Frente de Vizcaya y 18 de Julio* eta *Bilbao por España*. Frankoren tropek Biz-

kaia hartu zuteneko irudiak eta horren osteko propaganda ikusi ahalko da bi film horietan.

Proiektzioaren ostean, iaz hainbat berriztarren testigantzekin grabatutako dokumentalaren DVDa banatuko dute.

**> ZALDIBAR****Eskola eremua prest, ikasturtea abiatzeko**

Amaitu dituzte eskolako obrak. Gaur arratsaldean ikusi ahalko dute herritarrek obraren emaitza

**> ITSASO ESTEBAN**

Gaur, 18:00etan hasiko den ekitaldiagaz inauguratuko dute eskola eremu berritua. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldi horretan parte hartzera, eta ikasturte berrirako prest dauden Haur Hezkuntzakoentzako eraikin berria eta Haurreskola ikustera. Baita biomasa bidezko galdara berria bisitatzerare. Udaleko ordezkariak, herritarrek eta obra egin duten teknikariak elkartzeko dira gaur ekitaldi horretan.

Ikasturtea amaitu bezain laster ekin zioten eskola eremuko obrari, eta epe barruan amaitu dute

Eusko Jaurlaritzaren 464.800 eta Energiaren Euskal Erakundearen 105.000 euroko laguntza eduki dute

Gaurko inaugurazio ekitaldira joan ezin dutenentzat, bihar ere zabalduko dute eskola eremu berritua; 10:00etatik 13:00ak arte izango dute herritarrek obraren emaitza bertatik bertara ikusteko aukera.

Ikasturtea amaitu bezain laster ekin zioten eskola eremuko obrari, eta epe barruan burutu dituzte lanak. Beraz, udan atondu duten eskola eremuan abiatuko dute ikasturte berria.

**Bide luze eta korapilatsua**

Bildu eta PSE-EEren aldeko bozkekin onartu zuten apirilko ohiz kanpoko udalbatzar batean herriko eskolaren berrikuntzarako behin betiko proiektua (EAJ eta PP abstenitu egin ziren bozketa horretan).

Eusko Jaurlaritzaren 464.800 eta Energiaren Euskal Erakundearen 105.000 euroko dirulaguntza izan du Zaldibarko Udalak proiektua finantzatzeko. Guztira, 1.486.800 euroko aurrekontua izan du egitasmoak. Diru hori erabili dute, esaterako, Haurreskola eta Haur Hezkuntzarako eraikinak atontzeko.

**Urriaren 5ean berrartuko dute Zapatu Blai aisialdirako ekimena**

Irailaren 9tik 16ra, Zaldibarko udaletxean eman ahalko da ume eta gaztetxoek euskara erabiltzea ziurtatzea helburu duen ekimenaren parte hartzeko izena

**> I.E.**

Haur eta Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxoek euskara erabiltzea ziurtatzeko helburuarekin, berrituko dute martxan Zapatu Blai ekimena. Urriaren 5ean ekingo diote.

Udalak antolatzen du ekimen hau, eta hamabostean behin (zapatuetan), 16:00etatik 19:00etara, burutzen dituzte saioak. Umeekin lanean eskarmentu handia duten gazte euskaldunek gidatzen dituzte taldeak, eta

gehienez ere, 10 ume elkartzeko talde bakoitzean.

Zaldibarko ume eta gaztetxoek euskararen erabilera bul-

Haur eta Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxoek euskara erabiltzea ziurtatzeko helburuarekin jardungo dira

tzatzea da ekimenaren helburu nagusia, baina umeak lagunarteko giro jatorrean eta natura errespetatuz haztea zein ondo pasatzea ere badituzte jomuga.

Irailaren 9tik 16ra, Zaldibarko udaletxean eman ahalko da izena Zapatu Blai ekimenaren 2013-2014 ikasturterako. Udalaren 18-0 kontu zenbakian ordaindu beharko da 30 euroko matrikula, eta izena emateko orriarekin batera ordainagiria ere aurkeztu beharko da.

**Arduradunekin negoziatzeko, greba utzi dute CMZko langileek**

LABeko ordezkariaren arabera, aste honetan ekingo diote negoziazioari

**> I.E.**

Abuztuko oporrak orduko egin zuten 15 eguneko grebaren ondoren, lanera bueltatu dira CMZ enpresa taldeko langileak, enpresarekin negoziatzeko.

Eneko Agirre enpresako LAB sindikatuko ordezkariak adiera-

zi duenez, oporrak hartu baino egun bi lehenago egin zieten enpresaren arduradunek greban zeuden langileei lanera bueltatu eta negoziatzeko eskaintza.

Agirreraren aurreikuspenen arabera, aste honetan ekingo diote elkarriketari. Uztailean

70 langile greba egitera eraman zituzten eskakizun eta aldarrikapenak mahaigaineratuko dituzte negoziazio horretan langileek. Uztailearen 15ean hasi zuten greba mugagabea, "hitzarmen duina" eta "kaleraturiko langileak berrartzea" aldarrikatuta.

# ► Berbaz



## “Arazo politiko bategatik etorri bagara, arazo hori konpondu behar da”

### > MARKEL ONAINDIA

Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorio, ehunka lagunek ihes egin izan dute urtetan, atxiloketen edo kartzelatzeen beldur. Munduan barreiatuta bizi dira, eta Durangaldeko hainbat ere badaude egoera horretan. Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak gatazkaren konponbideari begira ekarpena egin du, eta aurpegia eman dute horretarako. Euretako hiru dira Imanol Jaio (Abadiño, 1985), Jon Irazola (Erorrio, 1956) eta Pako Aranburu (Mallabia, 1949). 3 urte daroaz ihesi Jaio, 31 Irazolak eta 13 Aranburuk. Bizimodu publikoa daukate Ipar Euskal Herrian, eta Ziburun batu dira beren kasuen berri emateko.

Zelan gogoratzen dituzue iheseko lehen egunak?

**J.I.:** Banekien nire lagunak atxilotu zituztela, eta posible zela nire bila etortzea. Lankideak etorri zitzaizkidan esanez: ‘Zure bila etorri dira lantokira’. Guztiz paralizatuta geratu nintzen. Hor ohartu nintzen beste mundu batera pasatzeko nengoela. Handik hilabete batzuetara Iparraldera heldu nintzen.

**P.A.:** Bizkar gainean 50 urtetik gora, eta beste bizitza batera pasatzea. Bizitza egina, familia... hasieran oso gogorra, uste dena baino gogorragoa. 50 urte eta gero bizitza horretan sartzea kolpe gogorra da. Gure borrokak hori eskatzen zigun, eta hori da ondorioetako bat.

**I.J.:** Ni gaztea nintzen eta gogoratzen dut azken urteetan, errepresioak eraginda, baldintza txarretan bizi ginela militantzian. Atxiloketa batzuk egon ziren, eta hurrengoa zu izango

zarela uste duzu. Torturatzen zaituzte eta kartzelara; edo, bestela, ezkutatu egiten zara. Akordatzen naiz arropa batzuekin alde egin nuela, eta Iparraldera heltzerakoan arropa berberarekin nengoela.

Zer dakar iheslari izateak?

**P.A.:** Bizitza berri batera egokitu behar izatea suposatzen du. Bizitza hori bide luze batean eta, salbuespenak egon arren, prekaritatean oinarritzen da. Baina beste gauza batzuk ere badakartzu: koherentzia politiko batekin jokatu behar duzu.

**I.J.:** Norberak bere kontraesanak dauzka, arazoak, familia... baina gaztetatik hasi den militantziako beste etapa bat bailitzan ulertzen saiatzen naiz.

**J.I.:** Militantziak denbora gehiago, eta buruan ere leku gehiago betetzen dizu. Egia da erantzukizun handi bat ere badugula, nahi ala ez, zerbait erreprezentatzen dugulako besteen aurrean. Bestalde, epe ertain edo luzerako etorkizunik gabeko egoera batean bizi gara. Ezin duzu proiektatu zure bizitza hemendik 3 urtetara. Adibide bat emango dizut: 82an etorri nintzen, eta 83an, GALEkoak iheslariak hiltzen hasi ziren. Etorkizunik ezin edukitze hori etsipen eta frustrazio ikaragarria da.

Urtetan ezkutuan egon den kolektiboa da zuena. Zergatik orain aurpegia eman?

**J.I.:** Historikoki iheslarien kolektiboak oso egoera desberdinak bizi izan ditu. Espainia European sartu zen, eta arrazonomendu faltsu bat egin zuten: ‘Europa demokratikoa da. Espainia European baldin badago, demokratikoa da. Beraz, ihes-

lariak ez daukate zentzurik’. Frantziak hartu zituen bere neurriak: GALi laguntzea, kanporatzeak, 87ko 100 laguneko sarekada, deportazioak... Geroztik iheslariak ez ziren joaten estatutua emateko bulegora. Orduan, babesik gabeko paria batzuen antzeko bilakatu ginen. Paperik gabe. Gaur egun, euroagindua dugu, tresna izugarri bortitza. Ekainaren 15ean, Miarrizten agertu ginenean, onartu genuen. Gu argitara goaz, gure errealitatea agertzera, gure egia

“

*Espainiarrek eta frantziarrek ez dute esango noiz, nola eta zertarako itzuliko garen geure herrira. Guk erabakiko dugu”*

kontatzera. Bagaude, edo, behintzat, egon nahi dugu fase erresolutibo batean. Gonbita egin diegu gure etsaiei gauza bera egin dezaten. Egoera horrek ezin du horrela segitu. Are gehiago, duela bi urte ETAK bere adierazpena egin zuenetik. Lehendabiziko aldiz kolektiboak badu gako bat. Espainiarrek eta frantziarrek ez dute esango noiz, nola eta zertarako itzuliko garen geure herrira. Guk erabakiko dugu; gainera, prozesuak aurrera egiteko. Konplexurik gabe gaude, eta erantzuna bortitza izan zen: bozeramaile bat atxilotu zuten.

Errepresaliatuak etxera bueltatzeko sasoia dela diozue ekarpenean. Horra bidean, urratsak emateko prest zaudetela.

**P.A.:** Ez da erraza izan. Bi urte pasatu dira Miarriztekora arte. Sekulako sakabanaketa bizi dugu munduan zehar. Guk egin behar genuen lan bat zen. Baina gaingintu dugu. Ireki den prozesuarekin bat egiten dugu goitik behera. Eta bat egite horretan, argi duguna da aurrerapausoak bilatzen joango garela. Jauziak emateko prest gaude. Arazo politiko bategatik etorri bagara, arazo hori konpondu behar da. Aurpegia ematea urrats positiboa izan da, eta horrela baloratu izan da.

**I.J.:** Sinesgarritasuna irabazi dugu herriaren aurrean, eta eskertu dute. Herria gure alde daukagu zentzu askotan, baina beste aldearen pausoak itxaroten dabil, egiaren eta justiziaren bidean.

‘Herria dugu arnas’ da zuen lema. Zer adierazi gura duzue?

**P.A.:** Aldebakarreko bide batean sartu gara. Estatuarekin zerbait egin beharko da, noski baietz. Baina gu zuzenean herrira goaz. Herriak izan behar duelako egoera honi buelta eman behar diona. Ez soilik gure egoerari, Euskal Herriko egoera politiko osoari baizik.

**I.J.:** Herria da aktibo eta subjektu nagusia. Herriaren babes hori lortuz gero, eta uste dut lortu dugula maila batean, horrek erakutsiko du ezker abertzaleko militanteak izan garela, baina benetan herriaren militanteak izan garela.

**J.I.:** Gu herritik sortu ginen, oldartze sentimendu batetik. Eta gu herrira itzuliko gara. Presoen eta iheslarien defentsa fase horretan ezin du bakarrik egin ezker abertzaleak, edota giza eskubideen inguruan ardurak dauzkaten erakundeak. Konponketa baldin badago, adiskidetzeta maila bat lortu beharko da. Eta hori ez da ideologia edo alderdi politiko bati dagokiona.

Horregatik esaten dugu ‘Herria dugu arnas’.

Familia eta lagunez aparte, zer da faltan gehien botatzen duzuen?

**J.I.:** Bizitza soziala. Badakit denborarekin aldatu ere aldatu dela, individualismoa eta kontsumismoa ere leporaino sartu zaizkigula. Baina bizitza sozial hori, edozein momentutan karrikara atera, jendearekin egon, proiektuak elkarrekin muntatu... halako optimismo bat dago kalean. Baikortasuna badago gauzak aldatzeko, txispa, eta hori faltan botatzen dut. Hori ez dut bizi izan hemen.

**P.A.:** Gogo izugarria daukat Anboto, Alluitz... horietara joateko. Kristorenak dira! Mendi horietan asko ibilitakoa naiz.

**I.J.:** Gure inguruan rol batzuk jokatzeko ditugu familia edo lagunekin. Bateria bat txarto ikusiz gero, ezin laguntze horrek barrenak jaten dizkizu. Fisikoki, baina baita psikologikoki ere, badaude trabak. Gaur hona egokitzen gara beste lagun edo familia batzuekin, baina ez da guztiz erreala.

**J.I.:** Oso gogorra egin izan zait beti, nik maite dudana jendearen bizitzako momentu ederretan hor ez egotea. Eta une txarretan ere ez; norbait hiltzen denean, hori gogorra da.

**P.A.:** Ni hemen nagoela hil dira aita, ama, osabak, izebak, emaztearen ama... gogorra da.

Herritarrek dira, zuen ustez, gauzak aldatzeko giltza.

**P.A.:** Guretzako oparirik ez da egongo. Olentzerorik ez dugu izango, Euskal Herriarentzako ere ez. Denok dakigu herri hau zapalduta dagoela. Herriko gauzetan jendeak inplikatu behar du, eta ea astiro-astiro goraka goazen.

**J.I.:** Azkenengo hauteskundetan, mapan kolore bat hedatu zela ikusi genuen, eta ea Durangaldean ere kolore hori hedatzen den, abertzale eta ezkertiarren kolorea.



**Klik!>**



# Anbotoren argazki lehiaketa "12hilabete, 12 herri"

Lagundu iezaguzu 2014ko egutegia osatzen.



## **Sariak**

**Argazki irabazlea: 300€**

**Paisaiarik onena: 200€**

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31.

Informazio gehiago: [anboto.org](http://anboto.org)

# Iritzia

> GUTUNAK



gutuna@anboto.org  
eguzteneko 17:00ak arteko epea

## Nanuk

Zenbait komunikabidetan berriki argitaratu den informazioa dela-eta, zehaztapen hauek egin nahi ditugu Transportes Nanuk SL-ko langileen gehiengoak:

- Grebarekin bat egin duten langileak enpresako langile guztien erdia baino gutxiago dira. Guztiz faltsua da, beraz, 95 langile daudenik greban.
- Lana ez etetea askatasun osoz erabaki duten langile horiek gogorki, eta modu onartezinean hertsatu dituzte, bai lan-esparruan, bai esparru pertsonalean.
- Bitarteko sindikalek egin dute grebarako deia, legez dagokion langile-batzarra egin gabe, eta ekintza hori berretzeko inolako bozketarik egin gabe.
- Enpresaren gehiengo kualifikatuak beren-beregi eskatu izan du enpresako langile guztien artean hitzartu dadin zer jokabide hartuko den, bai enpresaren aurrean, bai edozelako gertakizunen aurrean. Enpresa-batzordeak, or-

dea, ez du sekula eskaera hori aintzakotzat hartu. Aitzitik, erabakia dagoeneko hartuta zegoela erantzun izan du beti. Horregatik, ez dugu uste batzorde horrek ordezkatzeko gai-tuenik.

- Gure ustez, enpresa-batzordea, Transportes Nanukeko langile-taldearen interesak zaindu baino areago, batzorde-kideen sindikatuen interes propioak ari dira babesten.
- Enpresa-zuzendaritzari inolako proposamenik aurkeztu aurretik ere, dagoeneko ezarrita zegoen lan-etena hasteko data, alde aurretik agerian utzita zein zen batzordearen asmoa.
- Ez zaigu inondik ere arrotz gure inguruan bizi dugun egoera ekonomiko latza; horregatik, argi dugu hauek ez direla ez garai aproposak, ez modu eta bitarteko egokiak gure lanpostuak bermatzeko eta, are gutxiago, epe labur edo ertainean inolako hobekuntzarik lortzeko.

Nanuk enpresan greban ez dauden langileak  
Elorrio

## SEI HANKAKO MAHAIA

**JUAN JOSE GASTAÑAZATORRE**

PP



## Durangoko saihesbideari bultzada

Pasa den abuztuan Durangoko Udalak bide-zirkulazioaren inguruan eginiko zenbait lani buruzko informazioa zabaldu zuten hedabide batzuek, dela apurka-apurka semaforoak kentzen ari direla, dela TAO zerbitzuaren gestioaz arduratuko den enpresa aukeratzeko plikak eman dituztela.


Alabaina, bestelako albiste batek ez du inolako oihartzunik izan, hau da, Durangoko gerrikoa edo saihesbidea amaitzeko beharrezkoa den Tabira -Ona biribilgunea- Simply loturaren bigarren zatia ez da esleipenak.

Izugarri tristatzen gaitu bukaera-proiektuan aurreikusita dagoen lau zatietatik bigarrena baino ez izateak. Azpiegitura horrek hainbat urtetako atzerapena darama, eta Durangoko Udalak baliabide ekonomiko handiagoa zeukan garaian lanean hasi ez izana da horren arrazoietakoa bat. Alderdi politiko batzuek obra horrek hiriarentzat daukan garrantzia ez zutelako ikusi, edo ez zutelako ikusi nahi izan, gertatu da hori guztia.

Urte asko dira beste herri batzuetatik etorri, eta, adibidez, Atxondo, Elorrio, Arrasate, edota Bergarara bidean doan trafikoak, neurri handi batean, behintzat, Durangoko erdigunea zeharkatzen duela. Eta horrek trafiko pilaketa handia eragiten du, hirigunean sortzen den kutsadurarekin batera.

Errepide horrek duen garrantziaz ez ahazteko eskatu nahi diogu udal gobernari lerro hauen bitartez, eta datorren urteko aurrekontuetan partida ekonomiko bat hirugarren zatia egitera bidera dezala. Luzaroan itxaroten egon behar ez dezagun, eta herritarren pazientziarekin buka ez dezaten, espero dugu aintzat hartzea hainbeste desio dugun lan hori eta 2015erako amaituta egotea.

\*Erredakzioan itzulita



## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215  
**astekaria@anboto.org**

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2013ko irailaren 6a  
11. urtea - 512. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia  
eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzailea:** Jon Ander  
Urkiaga.  
**Argazkilaria:** Kepa Aginako,  
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale



**Hobo musika taldea** | Maider Huerta, Eugenio Perez 'Andi', eta Jose Cerros

## “Elkar ezagutzen joateko modu polita da bertsioak jotzea”

Eugenio Perez 'Andi' mungiarraz osatu dute Hobo hirukotea Maider Huerta eta Jose Cerros durangarrek: kontrabaxu, bateria eta gitarragaz rock eta country estiloko bertsioak jotzen dituzte

**> ITSASO ESTEBAN**

Taldeari dagokionez zelakoa izan da uda? Geldialdia egin duzue?

**Jose Cerros:** Bai, oporrak hartu ditugu udan, baina irailean topera hasi gara. Asteon egin dugu lehenengo entsegua, urriaren 13an, Durangoko txosnetan joko dugun kontzertua oso ondo prestatzeko.

Zelan elkartu zarete Hobo proiektuan?

**Maider Huerta:** Josek eta *Andi* denbora gehiago daramate elkarrekin jotzen: hiru-lau urte. Creedens taldearen bertsioak egiteko, taldean sartzea proposatu zidan Josek, eta iazko urri-azaroan sartu nintzen taldean. Kontrabaxua eta baxua jotzen ditut.

**J.C.:** Lau ginen hasi ginenean, eta utzi egin zuten bik. Taldekide berri bi batu zitzaizkigun, eta horietatik batek utzi egin zuen. Hiru gara orain: lehen bi gitarra geneuzkan, eta orain bakarra, baina orain kontrabaxua ere badaukagu.

Udaberrian Durangoko Intxaurre tabernan jo zenuten, ezta?

**M.H.:** Bai, hiru bat kontzertu eskaintzeko aukera izan dugu udaberri-udan.

Zer eskaintzen duzue kontzertuetan?

**M.H.:** Gustuko taldeen bertsioak egiten ditugu: Creedens, Bruce Springsteen, Neil Young, edo The Animals-en kantak jotzen ditugu, esaterako. Jendeak segituan identifikatzen ditu kanta horiek, eta dantzagarriak dira!

**J.C.:** Eta garesti dago zuzeneko musika dantzagarria Euskal Herrian! Hainbatekin proba egin eta gero, konturatu gara kanta horiekin gozatzen dugula gehien.

Zer berezitasun dauka Hobo talderaren zuzeneko eskaintzak?

**M.H.:** Bazkaloste baterako zein txosnetako jaialdi batean ondo geratzen diren kantak direla, esaterako.

**J.C.:** Patata tortilla bezala, edozein modu eta unetan sartzen dela ondo!

Bertsioak jotzetik aparte, sorkuntza jorrazteko asmorik badaukazue?

**J.C.:** Bai, noski, baina lehenengo jendaurreko kontzertuok ondo prestatu gura ditugu. Ez dakigu urduritasuna izango den, baina kontzertuetan ez dugu entsegetako maila ematen. Kontzertuak eta entseguak maila berean ipintzea lortzen dugunean hasiko gara gure kantak egiten. Izan ere, horixe baita helburua: gure kantak sortzea.

# “

*Bazkaloste batean zein txosnetako jaialdi batean ondo eman dezaketen kantak dira jotzen ditugunak”*

Aurretik beste talde batzuetan jardundakoak zarete?

**J.C.:** Nik ez daukat beste esperientziarik. Hasiberria naiz: 35 urterekin hasi nintzen bateria jotzen.

**M.H.:** Umetan solfeo eta pianoa ikasi ostean, hainbat urtetan musika asko entzun dut, baina jo barik egon naiz. Orain lau urte, bost neska hasi ginen Sokasalto taldean, eta baxua jotzen dut bertan. Kontrabaxua jotzen hiru urte daramatzat.

**J.C.:** *Andi* duela zazpi bat urte hasi zen gitarra jotzen, eta 46 urte dauzka.

Jende askok musika taldeak uzten dituen adinean zuek burubelari sartu zarete proiektu berri batean.

**M.H.:** Bai, horrela da. Jotzen zutenek utzi egiten dute behin adin batera ailegata, eta gutxik planteatzen dute horre-



lako proiektu batean sartzea. Baina gure mezua zera da: zergatik ez?

Zer onura eskaintzen dizue taldeak?

**M.H.:** Nire kasuan, entseguak egitea buruila batean sartzea lako da: arazo edo buruhauste batekin sartu arren, desnektatzea lortzen duzu.

**J.C.:** Oso kontzentratuta egon behar duzu, beste dena ahaztu, eta betetzen zaituen zer edo zer egitearen asetasuna ematen dizu, *footinga* egiten duenari bezala. Korrika egiteak, baina, ni ez nau betetzen.

Talde batean hasteko modu polita da bertsioak jotzea, ezta?

**J.C.:** Taldea egiten joateko, elkar ezagutzeko modu polita da bertsioak jotzea.

**M.H.:** Josek eta nik duela urte askotik ezagutzen dugu elkar, baina nik *Andi* en-

tsegu lokalean ezagutu nuen. Gure kantak sortzeko pausoa emateko, lehenbizi elkar ezagutzea oinarrizkoa da, bakoitzari zer gustatzen zaion jakitea.

Epe luzera zer helburu daukazue?

**J.C.:** Ametsak badaukagu, noski! Bakoitzak bereak: *Andi* Estatu Batuetara joan nahi du, niri zahartzaroan Nueva Orleans-eko taberna batean bluesa jotzea gustatuko litzaidake... eta denbora badaukat ametsa betetzeko! Ondo pasatzea da helburu nagusia, eta horretan gabiltza.

Zein da taldearen izenaren historia?

**J.C.:** Izen horrekin izendatzen dituzte AEBetan trenean bidaiatzen duten eskaileak. Martxan dagoen tren batera igo, eta aukera bat ikusten dutenean bajatzen direnak. Hor gura dugu guk ere ibili: aukeren arabera, trenak hartzen.

**hitz**  
liburudenda  
artekalea 14 durango 94 681 07 76  
 info@hitzliburudenda.com

**BODEGUILLA**  
  
TRAÑA-MATIENA  
Tel.: 94 681 43 85

**MATERIAL DE CONSTRUCCION MACOBER**  
  
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA BERRIZ, S.L.  
BILTEGIA ETA ERAKUSTOKIA  
Eitua industriagunea, 66  
Tel./Faxa: 94 682 78 90  
48240 Berriz (Bizkaia)  
macober@movistar.es  
Zeramika eta gresen salmenta • Zementuak - isolamenduak  
- pladurra... • Eskaintzak lehen mailako zeramiketara •  
2. mailako baldosak trastelekuetarako.  
Den-dena MACOBERren, Berrizen!



**> ITSASO ESTEBAN**

Irail, urri, azaro eta abendurako hamabi kultur emanaldi lotu dituzte, dagoeneko, Berrizko Kultur Etxean. Horietatik hamaika antzerki emanaldiak dira; bost haurrei edo publiko familiarrari zuzendutakoak, beste bi kalean egiteko pentsatutakoak, eta helduentzako beste hiru. Besteak beste, Euskal Herriko sortzaileen obrak ere ikusi ahal izango dira Berrizko Kultur Etxean: Teatro Paraiso, Gorakada, Glu Glu, Kalika Teatrea, edota, Artedramarenak, esaterako.

**Shakespeare bikoitza**

Azaroaren 23an, Shakespeare-ren *Hamlet* klasikoaren moldaketa ekarriko du Artedramak Berrizera: Xabier Mendigurenek egokitutako testuan oinarritutako obra da, eta Ximun Fuchs da zuzendaria. Azaroaren 1ean estreinatu berri eskainiko dute Le Petit Theatre de Pain, Dejabu eta Artedrama taldeek euren azken elkarlan hori Berrizen.

Idazle ingelesaren eragina agerikoa da azaroaren 16an Berrizko Kultur Etxean jardungo duen Producciones Sexpeare talde madrildarraren izenean

**> ANTZERKIA****Era guztietako ikusleak asetzeko moduko egitarau kulturala prestatu dute Berrizen**

Irailan hasi eta abendura arte, adin eta gustu guztietarako antzerki obrak

bertan. *Sexpearemente* obra eskainiko du: kulturaren eta antzerkiaren egoerari buruzko komedia kritikoa.

Abuztuan estreinatutako *Hiru* obrarekin egingo du Txalo Produzioak-ek, urriaren 5ean,

Berrizera bisita, Loli Astoreka, Miren Gojenola, Ana Elordi eta Zuhaitz Gurrutxaga aktoreekin.

Umeentzako ikuskizunak eskainiko dituzte Durangaldeko Gorakada taldeak eta Glu Gluk. Lehenengoak, *Munduari itzulua*

eskainiko du, urriaren 11n, eta bigarrenak, *Ahatetxo itsusia*, azaroaren 8an.

Urte bat eta hiru urte arteko txikienezako Teatro Paraisoren *Lorategia* dakar Kultur Etxeko programazio berriak.

**> MUSIKA****Pixontxis taldearen kanta berriak, jaietan, Gaztetxean**

Urte amaiera baino lehen kaleratuko duten diskorako sortutako kantak joko dituzte Elorrion



Ferixa Nausiko jaien harira, Gaztetxean dute hitzordua Pixontxis taldekoek gaur gauean. Elorrioko hiru musikariek eta Etxebarriko batek osatzen dute Pixontxis musika taldea.

Urtea amaitu baino lehen kaleratuko du laukoteak iraupen luzeko lehenengo diskoa, eta azken aldiaren eskaini dituzten kontzertuetan bezala, kanta berri horiek joko dituzte Elorrioko Gaztetxean, gaur.

“Orain arteko punk-rock oinarria mantendu dugu, baina ‘kañeroagoak’ dira disko berriko kantak”

Liherr Larrañaga taldekideak azaldu duenez, “orain arte jorratu dugun punk-rock oinarria mantendu dugu, baina *kañeroagoak* eta landuagoak dira kanta berriak”. Zortzi kanta grabatu dituzte disko berrirako. Lehen-

dik, 2010ean, lau kantako maketa kaleratu zuten, eta oraingoan ere Elorrioko Iheskide taldeko *Sagu* izan dute grabazio lana gidatzen.

Azken aldiko kontzertuetan bezala, disko berrirako sortu dituzten kantak joko dituzte Elorrioko Gaztetxean, gaur

Duela hiru urte egin zuten lan horrekin alderatuta, lortutako esperientziari esker “garapena” begibistakoa dela uste dute Elorrioko musikariek.

Abenduan hasi zuten grabazioa, baina hiru hilabeteko geldialdia egin behar izan zuten tartean. Lana berrartu, eta maitezean amaitu zuten grabazioa.

Taldekideen berbetan, “amaitzeko presarik barik” jardun dute diskoa grabatzen, baina datozen asteetan azken ukituak eman, eta urtea amaitu orduko kaleratuko dute.

**GEURE DURANGALDEA**

**MIKEL ONAINDIA**  
Arte historialaria

**Telebista berria**

Zinema onena telebistan ikusten dela esatea topiko bihurtu bada ere, bada egiazko baieztapen horretan. Zabor ugari ikus badezakegu ere, izaera zinematografikoa duten fikzio lan bikainak aurki ditzakegu pantaila txikian, batez ere, AEBetatik datozenen artean.

Besteak beste, *Six Feet Under* (HBO, 2001-05) –kontserbadorea formetan, iraultzailea edukietan–, *The Sopranos* (HBO, 1999-07) –mafiaaren erretratu bikaina–, *The Wire* (HBO, 2002-08) –hiri kapitalista garaikidearen erradiografia–, *Mad Men* (AMC, 2007-13) –60ko hamarkadari begirada idealizatu bezain iluna–, *Homeland* (Showtime, 2010-13) –egungo geopolitika zalanztan jartzen duen thrillerrazekin *Bordwalk Empire* (HBO, 2010-13)–giza pasioen gaineko testigantza aparta– nabarmenduko nituzke.

Telesailaren formatua zaharra bada ere, horiek aurrekontu itzelak, lehen mailako aktoreak, intertextualitate nabarmena eta sekulako gidoiak dituzte. Filmekin alderatuta, denboran luzatzeko gaitasunak konplexutasuna eta protagonisten garatzea ekarri du, askok Shakespeare edota tragedia grekoekin ere konparatzeraino. Don Draper, Omar Little, Tony Soprano, David Fisher zein Nucky Thomsonen nortasun psikologikoa sakona da oso, haiekiko –asko gaizkile hutsak badira ere– enpatia garatzera heltzeraino.

Duda barik, fikziozko ikus-entzunezkoen esparruan mendebaldeko historiako produkzio literario eta zinematografiko handien mailan daude, eta horregatik merezi du horiengana hurbiltzea.

Solaguren kalea 3  
Tel.: 94 681 44 74  
Faxa: 94 621 53 74  
E-mail: urtiaga.sl@terra.es  
MATIENA  
ABADIÑO

**urtiaga**  
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK  
ETA BEROGAILUAK, AZULEJU, ZOLADURA,  
TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

**irailaren 21ean  
denboraldi**

**BERRIA!**


San Agustin  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGORNO UDALA

Hemen agertu  
gura badozu  
**deitu!**



**94 621 79 02**




**PLATERUENA**

# PLATERUENA IRAILA

2013 EGITARAU

[www.plateruena.net](http://www.plateruena.net)**07**

ZAPATUA

**JAIALDIA**
**JAIALDI  
SENEGALDARRA**

Jappoo elkarteak antolatuta

22:30etatik aurrera. Sarrera: 5€

**26**

EGUENA

**KANTUZALEENTXOKOA**
**KANTULAGUN**

Izen-ematea Plateruenean bertan irailaren 16tik aurrera.

20.00etan.

**13**

BARIKUA

**JAIALDIA**
**MARKINAKO SENEGALDAR  
ELKARTEAREN 10. URTEURRENA**
**EUSKADI NE DORT PAS** telebista saioa zuzenean.**AMINA POTE** aurkezlea bertatik bertara.

21:30etan. Sarrera: 10€

**27**

BARIKUA

**MUSIKAKONTZERTUAK**
**TRIBUTO AL BARRIO**

23:00etan. Sarrera: 8/10€

**20**

BARIKUA

**MUSIKAKONTZERTUAK  
LOKALETIK AT**

EN CLAVE DE DOS (Durango-Berriz). Pop-Rock.

11 IKUSTEKO JAI OAK (Durango). Rock.

ORION CHILD (Durangaldea). Metal melodikoa.

22:00etan. Sarrera DOAN

**28**

ZAPATUA

**EKOEGUNA**
**DASTAKETA EKOLOGIKOA**

11:00etan: elikadura ekologikoarekin lotutako aurkezpenak.

13:00etan olio ekologikoaren dastaketa\* (\*txartelarekin)

14:30etan osagai ekologikoekin prestatutako bazkaria\* (\*txartelarekin).

Txartelak Plateruenean salgai.

**21**

ZAPATUA

**BAKARRIZKETAK**
**DANI MATEO**

22:30etan. Sarrera: 14/16€


[www.plateruenasarrerak.eu](http://www.plateruenasarrerak.eu)

URRIAN DATOZENAK: 05 DINERO, 27 AIKO ERROMERIA, 30 "III. ERREPUBLIKA ALA INDEPENDENTZIA?" (1936 KULTUR ELKARTEA), ARTE ERAKUSKETA,





# Ikasturte berriko lan poltsarako hezitzaileak behar ditugu!!



ikasturtean zehar ere gurekin lan egiteko aukera izan dezakezu: zaintzak, tailerrak, ludotekak, eskola errefortzuak, gazteekin ekintzak...



## Baldintzak:

- Euskara maila ona
- Esperientzia aisialdiko ekintzetan
- Berbaroko formazio saio laburra eginda izatea \*

\* 1.formazio saio laburra: urriak 4, 17:00-19:00

(ikasturtean zehar saio gehiago eskainiko dira, baina oraindik zehazteke)

**Curriculumak aurkezteko epea:**  
**irailaren 27ra arte** (eguerdiko 13ak)

## Berbaro Elkarte:

Pinondo plaza 1, 1.solairua (Durango)

946202540 / aisialdia@berbaro.com




# **Kirola**

**PATXI BOLAÑOS** | 51 urte, Durango (gaur egun Berrizen bizi da) | Durangoko Kulturalako kirol zuzendaria

## *“Emaitzak direnak direla, ondo jokatzera irten behar dugu beti”*

Patxi Bolañosek Rikardo Txintxurretaren tokia hartuko du Kulturalako kirol zuzendari karguan



**> JOSEBA DERTEANO**  
Athletic-egaz liga bi eta Errege Kopa bat irabazi zituen taldeko jokalaria izan zen Patxi Bolaños. Orain, aurretik duen erronka ez da hain sonatua izango, baina bai garrantzitsua, Durangoko Kulturalako kirol zuzendari berria delako.

### **Zelan izan zen zure fitxaketa Durangoko Kulturalagaz?**

Egia esan, modu berezian gertatu zen. Fernanek [Fernando Bilbao, Kulturalako presidentea] denbora zeraman nire atzetik, baita aurreko presidentek ere [Jose Luis Espiau]. Baina, lan kontuak zirela, edo gertaera pertsonalak zirela, asmoa sekula ez zen gauzatu. Aurreko presidentek dimititu zuenean, Fernanek berriro deitu zidan eta batzartu egin ginen. Futbol gosea nuenez, eta Fernanegaz urteetako hartueman ona dudanez, eskaintza onartzea erabaki nuen.

**Kirol zuzendari bakoitzak bere lan egiteko modua du. Zeintzuk dira zure lan ildoak?** Kirol arloari dagokionez,

ideiak argi ditugu. Durangoko futbolariak futbolearen dibertitu daitezen nahi dugu, eta zaleek partiduen amaieran zera esan dezaten: “Partidu entrenitua izan da”. Izan ere, gogoan dut gaztea nintzenean Tabiran giro oso ona egoten zela. Giro hori asko galdu da. Gaur egun, talde asko daude, eta, bestalde, telebistaz futbol partidu asko ikusi daitezke etxetik mugitu gabe. Garai batean Tabiran zegoen espiritu hori berreskuratu gura dugu, eta horretarako errezeta futbola da, asterik aste zelaian erakusten den jokoa. Hori lortzeko baloiaren tratua zainduko dugu, gerora, horrek markatuko dituelako diferentziak.

**Aurreko entrenatzaile batzuen ideia ere hori zen, aurtan arte Amorebietan ibili den Axier Intxaurreagarena esaterako.**

Ez nituen sasoi hartako partiduak ikusi, baina aipatutako hori kirol proiektu askoren ideia izaten da. Beste kontu bat da asmoak gauzatzeko ahalmena izatea: jokalaria horretarako egokiak diren,

entrenatzaileak ideia bera duen... Liga hasten denean, emaitzek ausartago edo koldarrago bihurtzen zaituzte. Orduan eutsi behar diogu gure ideari: emaitzak direna direla ere, futbolearen ondo jokatzera zelairatu behar dugu, beti. Ez dugu ez galtzera irten gura, irabaztera baizik. Ideia hori azpi-azpitik txertatuta badago, gazte mailako taldeetatik bertatik, urte batzuen buruan denek asimilatuta edukiko duten kontzeptua izango da. Hori guztia, jakina, klubaren izaera galdu barik: gauza bat da beti baloia jokatu nahi izatea, eta beste gauza bat hori noiz egin behar den eta noiz egin behar ez den jakitea.

**Filosofia hori txertatzeko aldaketa asko egin behar dira gaur egungo egiturari?**

Ez. Entrenatzaileek ondo ikusten dute gure bidea, eta hori da garrantzitsua. Gero, entrenatzaile bakoitzak bere lan egiteko modua du, eta hori dena bateratzea korapilatsuagoa da. Baina mezu orokorrak berbera izan behar du. Jokalari gazte asko ditugu lehen taldean, eta

gure helburua da hemendik denbora batera jokalaria horiek goragoko mailan jokatu dezatela.

### **Kulturalan bertan?**

Ez derrigor. Balizko igoera helburu bat beharrean, lan onaren ondorio dela ikusten dugu. Ondo jokatzera lortzen badugu, partiduak irabazteko aukera handiagoa edukiko dugu. Saikapeneko goialdean egotea, entrenamenduetan egiten den lan onaren eta lan hori partiduetan gauzatzeko dugun abileziaren ondorioa izango da azken batean. Seguruenik

urteak beharko ditugu helburu horiek lortzeko.

### **Beraz, zein da aurtengo helburua?**

Partiduz partidu ekitea eta domekarik domeka gero eta hobeto jokatzeko joatea.

### **Lehen taldeko entrenatzaile Imanol de la Sotak oso ondo ezagutzen du harrobia.**

Ni klubera batu nintzenerako fitxatuta zeukatzen. Aurreko urteetatik ezagutzen dut, eta bera ekarri zutela esan zidatenean oso pozik jarri nintzen. Gure ideia gauzatzeko entrenatzaile aproposa dela uste dut.

### **Jabier Uria Athleticen presidente zen sasoiaren, Andoni Zubizarretaren bigarrena izan zinen.**

Zubizarreta kirol zuzendaria zen, eta ni bere laguntzailea izan nintzen. Esperientzia positiboa eta gogorra izan zen. Oporrik gabeko urte bi izan ziren.

“

*Imanol de la Sota gure ideia gauzatzeko entrenatzaile aproposa dela uste dugu”*

### **Zelan gogoratzen dituzu Athletic-egaz liga bi eta Errege Kopa bat irabazi zituen sasoiak?**

Ezinezkoa zirudien guk liga bi eta Kopa bat irabaztea. Baina horrelakoak gertatu egiten dira. Orduan ere talde handiek, Bartzelonak eta Real Madrilek, esaterako, jokalaria onak zituzten. Lortu genuena ikaragarria izan zen guretzako. Urteak joan ahala konturatu naiz zer garrantzitsua eta zaila izan zen egin genuena. Harrezkero ere talde onak izan ditu Athleticcek, baina titulu barik. Ea laster bat irabazteko aukera duten.

## **Kulturalaren aurtengo fitxaketak**

**Aritz Alberdi,**  
· 28 urte, atezaina, lurretakotik dator.

**Xabier Infante**  
· 20 urte, defentsa, lurretakotik dator.

**Asier Nuñez**  
· 19 urte, defentsa, Portugaletetik dator.

**Xabier Garces**  
· 24 urte, defentsa, Santutxutik dator.

**Ekaitz Molina**  
· 22 urte, erdilaria, lurretakotik dator.

**Aitor Bilbao**  
· 23 urte, erdilaria, lurretakotik dator.

**Lander Olaetxea**  
· 20 urte, erdilaria, lurretakotik dator.

**Beñat Alberdi**  
· 20 urte, erdilaria, lurretakotik dator.

**Gorka Llona**  
· 19 urte, erdilaria, Arenas taldeko gazteen taldeetik dator.

**Xabier Cortezon**  
· 20 urte, aurrelaria, Somorrostro taldeetik dator.

**Mikel Aperribai**  
· 22 urte, aurrelaria, lurretakotik dator.



&gt; SKATE

# 'Playground26': skate zaleek estalpeko topagune berria dute Durangaldean

Maiatzean inauguratu zuten 500 metro karratudun eremua Aliendalde industriaguneko pabilioi bi batuta



Skate guneko hiru sustatzaileak askotariko arrapalen erdian, gaztetxo inguratuta.

&gt; JOSEBA DERTEANO

*Playground26* estalpeko skate gunea maiatzean ireki zuten durangar biren (Virginia Guillen eta Alex Guillen) eta zaragozar baten (Carlota Diez) ekimenez. Aliendalde industriaguneko pabilioi bi batu, eta 500 metro karratudun skate munduko askotariko modalitateak praktikatzeko aukera eskaintzen dute. Baina ireki zutenetik Donostia, Gasteiz eta Iruñeako skatelariak etorri badira, ez da askotariko arrapalengatik bakarrik, kul-

Azpiegiturak gunea bitan banatuta daude: asialdirako gunea eta askotariko skate arrapalez osaturikoa

tura eta mugimendu oso bati batzeko, elkarrekin egoteko eta ideiak partekatzeko aukera eskaini dietelako ere bada. Skate zaleen topagune bihurtu da.

Adin guztietako skate zaleei zuzenduta, azpiegiturak gunea bitan banatuta daude. Batean arrapalak dituzte: *mini ramp*-a, olatu estilokoa, *spine* deritzena, eta *foam pit* arrapala. Azken hori da gunea horretako arrapala nagusia. Akrobazia egin ostean, edozein posturatan erori daiteke belakiz betetako igerilekura, batera minik hartu barik. Euskal Herrian horrelako gutxi daude: "Gure erreklamua nagusienetakoa da", azaldu du Carlota Diezek. Gunera horietan skate estilo

libreko edozein modalitate praktikatu daiteke: *skate*-a, *skate roller*-a, *BMX* bizikletak, *mountain board*-a eta eskulekudun *scooter*-ak. Azken modalitate horrek jarraitzaile asko batu ditu azken urteetan. "Iraultza bat izan da", dio Alex Guillenek: "Ez genuen ezagutzen, eta orain bete-betean sartu gara. Hemen batzen diren gazteen %80k modalitate hori praktikatzen du".

Bigarren gunea asialdirako bideratu dute. Sofak, ohe elastiko bat, futbolin bat, aldizkariak, eta bestelakoak dituzte 250 metro karratudun banatuta. "Patinatzea ez da derrigorra. Gura duena etorri daiteke lagunekin egotera, edo arratsalde pasa asialdi gunera". Asialdi gunerako sarrera doakoa da.

Urritik aurrera, nobedade moduan, klase bereziak eskaintzeko asmoa dute. Horrez gainera, gunea biak alokatu egiten dituzte, esaterako, urtebetetzea bertan ospatu gura duenarentzat.

Skate gunerako eguneko sarrera 3 euro da; hilekoa, 20 euro. Urritik aurrerako ikastaro bereziak 35 euro izango dira. Izen-ematea *playground26@hotmail.es* posta elektronikoa egin daiteke. Gaur egun, eskulekudun scooter talde bat sortu guran dabilta. Xehetasunak euren web orrialdean daude: [www.playground26.es](http://www.playground26.es).

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

## 'Pablito'-ren zain

Atzo zela dirudien arren, aspaldiko kontua da Berasaluze II.a lesionatu zeneko eguna. Ia-ia ordudunik, Durangaldeko pilotazalea umezurtz dabil profesional mailako partiduen jarraipena egiterakoan.

Gabezia areagotu egin da udako torneoi begira jartzean. Maila goreneko partiduetan Aimar, Oinatz, Irujo eta Xala aurrelariak bakarrik ikusteak gehienoi *Pablito*-ren irudia ekartzen izan digu gogora, bera hor izan beharreko pilotaria baitzen. Joko itzela emango zuen, gainera.

Ikuslearengana heltzeko sen berezia du berrizarrak, bai jokoz, bai izaeraz. Hori argi geratu zen baita pasa den astelehenean ere, Lekeitioko Santi Brouard pilotalekuan (bertan izan nintzen); Pablo, bere lagun Mikel Urrutikoetxearen finalurrekoa ikustera hurreratu (bere hutsunea 'nolabait' betetzen duen zaratazotzerra), eta jendea bere egoeraz galdezka hurreratzen zitzaiotzanean.

San Mateo torneoaren zain, eta San Antolin torneoa bukatuta, negu gogorra etorriko da, pilotazale denek Berasaluze VIII.a kantxan nahi dugu berriz. Hala ere, itxaron beharra dago oraindik. Berriztarra lanean ari da dagokion bide luze horretan, baina hilabete horietan guztietan entzundako galdera honakoa izan da pilotazaleen artean: aurreko mailarik hartuko ote du? Ea posible den, denok gozatuko baitugu bere jokuz.

&gt; TXIRRINDULARITZA

## Ruben Perez: "Sorpresa handia eta atsegina izan da"

Entrenatzen zebilela, atsedean hartzeko geratu, mugikorra hartu, eta albistea irakurri zuen

&gt; J.D.

Entrenatzen zebilela, freskagarrri bat hartzeko geratu, eta mugikorrakaz interneten begira ari zenean irakurri zuen Fernando Alonsok Euskaltel-Euskadiren lizentzia erosi zuela. "Sorpresa

handia eta atsegina izan da", adierazi du zaldibartarrak, "ia langabezian egotetik lana izatera igaro naiz goizetik gauera". Ruben Perezek 2014ko abendura arteko kontratua dauka Euskaltel-Euskadigaz.



Ruben Perez, Euskaltel Euskadigaz lehian. orbea.com.



- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz


**Herriko gudarien kalea, 10 behea**  
**48200 DURANGO**  
**Tel./Faxa: 94 621 54 04**



**clínica dental** ■ **hortszklinika**  
**b. unamunzaga** ■ **e. etxebarria**

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre 2C blokea, behea - 48200 Durango - Tel.: 94 681 99 51



> **FUTBOLA**

# Bederatzi urte artekoentzako futbol eskola sortu dute

Gertasport elkarteak sortu du, eta 4 eta 9 urte artekoen zuzenduta dago; astean birritan Iurretako Larrakozelaian eta Maiztegiko azpiegiturretan batuko dira



Gertasport-ek antolatutako futbol kanpuseko irudia.

> **JOSEBA DERTEANO**

Gertasport elkarteak futbol eskola sortu du inguruko jokalariek gaztetxoek zuzenduta. Lau eta bederatzita urte artekoen bideratuta dago, eta irailaren 20tik aurrera, astean birritan batuko dira. Eguazten eta barikuetan, 17:00etatik 18:30era. Jarraian Iurretako azpiegitura bitan garatuko dute: Larrakozelaia futbol zelaian eta Maiztegi eskolako arteo-futbol kantxetan.

Futbol eskolak hainbat alderdi landuko ditu gaztetxoekin (hiru adin tartetan banatuta), baina helburu nagusiak bitan laburbildu daitezke. Batetik, futbolaren alderdi teknikoa landuko dute: buruz buruko teknika, talde lana, oinarriko trebetasun motorrak... Horregaz batera, adiskidetasuna, esfortzua eta elkartasuna lako baloreak txertatzen saiatuko dira: "Baliok lantzeari garrantzi handia ematen diogu,

futbolekin ez ezik, bizitzan bertan ere eragiten duen alderdia delako", dio Jon Gurutz Vazquez arduradunetako batek.

Futbol eskolan parte hartu ahal izateko adin tartea bederatzita urtera mugatzea ere baditu bere arrazoiak. Batetik, futbol klubak, normalean, adin tarte horretatik gora hasten dira taldeak sortzen, eta eskolaren lana klubekin bateragarria omen da: "Inguruko klubek gure lana aprobetxatu dezakete, eskolako gaztetxoek bost urteko formazioa eginda luketelako". Era berean, inguruko ikastetxeekin "eskutik helduta" lan egiteko asmoa dute: "Batzuetan kezkatuta agertzen dira jokalariek gazteekin arin joaten direlako futbol klubetara. Guk formazioa eskainiko diegu, baina hori ez da eragozpen izango euren ikastetxean futbolekin jokatzeko jarraitzeko"



Silvia Trigueros irudiaren eskuinaldean.

> **TRIATLOIA**

# Espainiako txapelketa biren jabe da Frades

Gurutze Frades distantzia luzeko Espainiako txapelkunak distantzia erdikoa ere irabazi du

Gurutze Frades iurretarrak (MugarraTT) distantzia erdiko triatloien Espainiako txapelketa irabazi du orain asteburu bi Posadas herrian (Kordoba). Gaur egun, bera da distantzia luzeko triatloien Espainiako txapelketa ere. Eta hilabetez, gutxienez, txapel biei eutsiko die. Izan ere, distantzia luzeko txapelketa urriaren 6an jokatu dute Calellan (Bartzelona). Fradesek ira-

bazten badu, hirugarren urtez jarraian jasoko luke distantzia luzeko onenaren garaikurra.

Posadasen jokatuak txapelketan, igeri eta bizikletan ibili ostean, bigarren tokian hasi zuen korrikako azken tartea. Zirkuituko bigarren itzulian lider ipini, eta postu horri eutsi zion azken arte. Domeka honetan Narbonneko (Frantzia) Extreme Man-a lehiatuko du.

> **FUTBOLA**

# Mendilibar kargutik kendu dute Osasunan

"Egunean egunean hemen bizitakoa paregabekoa izan da. Oso gustura nengoen taldean", esan du

Jose Luis Mendilibar (1961, Zaldibar) Osasunako entrenatzaile kargutik kendu dute. Hiru denboraldi oso eta laugarreneko hiru partidu eman ditu Iruñeko taldean. Hasi berri den denboraldiko hiru partiduak galdu ostean, zuzendaritzak entrenatzaile aldaketza erabaki du.

Eguztenean eskaintako prentsaurrekoan Osasunak bizitako hiru urteak "paregabeak" izan direla adierazi zuen, eta "oso gustura" zegoela taldean: "Baina horrelako gauzak gerta-

tu egiten dira. Zuzendaritza Bartzordearen erabakia izan da, eta onartu egin behar dut. Nik ez jarraitzea erabaki dute, eta ez dago besterik".

Jokalariek lanagaz gustura dagoela dio: "Konpromiso handia dute, eta daukaten dena eman dute. Egoera zailari aurre egitea espero dut. Euren esku dago".

Bere gomutarik onenak lehen denboraldikoak dira: "Etxean jokatuak partidu denak ikaragarri onak izan ziren".

> **ULTRA TRAILA**

# Trigueros bikain aritu da; Iturrietak ez du amaitu

Silvia Trigueros bosgarren sailkatu da Mont Blanc-en; Zigor Iturrietak ez du amaitu

Mont Blanc-eko ultra trail prestigiotsuak zapo mikatza utzi dio Zigor Iturrietari (Euba, 1974; Durangon bizi da), eta oso goxoa Silvia Triguerosi (Barakaldo, 37 urte; Abadiñon bizi da). Iturrietak ezin izan du lasterketa amaitu; Trigueros bosgarren izan da.

Triguerosen esanetan "urteko hitzordurik garrantzitsuena nuen, eta urduri nengoen". Antolakuntzak faboritoen artean sartu zuenez, aurreko multzoan ekin zion lasterketari. Kilometro gutxiaren ostean bosgarren

zegoen. Ondoren, hain lasterketa gogorrean ohikoak diren pataaldiekin aurre egin, eta "oso nekatuta, baina oso pozik" helmugaratu zen. Iturrietak 167 kilometro dituen ultra traileko ibilbide osoa lehenengoz osatu gura zuen. Izan ere, parte hartu zuen aurreko hiru aldietan (horietako batean hirugarren amaitu zuen) eguraldi txarraren ondorioz ibilbidea laburtu egin zuten. Aurten eguraldia alde izan du, baina gorputza ez. Botaka aritu zen, eta 90 kilometro inguruan utzi egin zuen.

> **ARETO FUTBOLA**

# Sei talde lehian, Mallabiak antolatu duen torneoan

Mallabia Areta Futbol Taldeak urteroko torneo antolatu du astebururako Zaldibarko kiroldegian. Zapatuan, 16:00etatik aurrera, sailkapen partiduak jokatu dituzte. A multzoan Sasioko Durango, Abadiñoko Lagun eta Soloarte taldeak egongo dira, eta B multzoan Saltzaileak (Ermuako taldea), Debarrena (Elgoibarko taldea) eta Mallabia Tabirakolor.

Sailkatzen diren taldeek domekan, 16:00etatik aurrera jokatuko dute finala.



# ➤ Aisialdia

➤ **AUZORIK AUZO**



## Gaztelua auzoa, ermita eta baserrietan zehar, oinezkoen pasealeku ohikoa da

San Martin ermita eta askotariko baserri interesgarriekin batera, bertatik egunero ibiltzen diren ibiltari kopuruarengatik bereizten da Abadiñoako Gaztelua auzoa

### ➤ JOSEBA DERTEANO

Zelaietatik Astolarako bidea Gaztelua auzotik egitea oinezko ibiltari askoren ohitura da. Eguraldiak laguntzen badu, eguneko edozein ordutan ibiltzen dira oinezkoak zein bizikletariak, Gazteluak bisitaria arazo mundutarretatik alden-du, eta buruari atsedena eskaintzeko ezaugarri hori duelako. Bertan dago, baina, aldi berean, hiriguneetatik aparte. Gerediagatik Elorriorako errepide berriko obrek ere ez diote kendu xarma hori. Udalak lan horien ondorioz zirkuitu alternatiboak prestatu ditu, eta hainbat tokitan (Astolan, Gazteluarako bidegurutzean, esaterako) ipini ditu horien gaineko informazio panelak.

Gazteluak oso ezaguna den ikur bat baldin badu, hori San Martin ermita da. Astolatik Zelaietarako ibilbidearen erdian dago, asfaltuzko bidearen gongo puntuan. *Abadiñoako toponimia; ahozko iturburuak iturri dokumentalak*

*eta bibliografiakoak* liburuak jasotzen duenez, sasoi batean San Martin izeneko ermita bi egon ziren Gazteluan: “Bata *Aranekoa* (zutik dagoena), bestea Gazteluarriaga baserriaren inguruan. Bietan Sanmartinbasoak daude. German Abarrategik dio bere aitari entzunda daukala, inoiz ikusi zuela zatiren bat Sanmartinbasoan, eta oraindik galzada ere geratzen da”. Gaur egungo ermitak hainbat eraberritze izan ditu. Horietako bat 1702an izan zen. Liburu berean, Felipe Belarrek idatzitako *Historia de la Parroquia de Santorcuarto de Abadiano* lanari egiten dioten erreferentzia jasota jakinarazten dutenez, “...Gaztelu kofradian aurretik egondako ermita biren materialekin eraberritu zuten, zeintzuek elizbarrutiko Probiso-rearen lizentziagaz eraitsi zituzten”.

### Baserri interesgarriak

San Martin ermitaz gainera, hainbat ba-

serri interesgarri daude Gazteluan. Burgieta-Atzekua eta Gaztelugoya baserriak, esaterako, XVI-XVII. mendeak dira. Burgieta-Atzekuako aurrealdean egurrez eta adreiluz osaturiko egitura dotorea ikusi daiteke. Bizileku bateko baserria da, eta ateburudun ataria du. Baserri horiez gainera, Etxebarria, Iturriaga-Etxebarria eta Gaztelu-Goitia, arku bakarrekoak, zein Arezti, arku bi-koitzekoak, azpimarratu daitezke, denak XVIII-XIX. mendeak.

### Askotariko paisaiak

Baserri eta ermita konkretuez gainera, Gazteluako goialdetik paisaia ederrekin gozatu daiteke. Bideko une batzuetan, zelai eta basoen bestaldean, Traña-Matienaren panoramikagaz gozatu daiteke, eta begirada harago bideratuz gero, Durangoko hainbat eraikin ere bistarazten dira. Anboto mendizerrako tontorrek ere gertu daudela dirudi Gazteluatik.

## ZER IKUSI



Traña-Matienaren ikuspegi Gazteluatik.



Zirkuitu alternatiboen panela Astolan.



San Martin ermita ondoko iturria.

laguntzaileak





# EDERTASUN GIDA



## Laser depilazioa

Gorputzeko ilea denbora luzerako kentzen duen teknika da laser-depilazioa. Ilea ez da ateratzen edo erauzten; sustraia bera hiltzen da laser-izpien eraginagatik. Baina, adituen arabera, ez du azaleko beste elementurik kaltetzen, eta orbanik ere ez du uzten. Edozelan ere, ez du minik egiten, azkura sortu ahal du gehien jota. Kolorearen kausa den melaninak hartzen du laserraren argia, eta 60 graduko beroagaz sustraian eragiten du. Ilea ez da desagertzen, baina luzaroan berriro ez irtetea ahalbidetzen du.

Denbora pasa ahala, gero eta saio gutxiago egin beharko da. Batez ere emakumeen artean zabaldua dagoen arren, gero eta gizon gehiagok egiten dute laser-depilazioa.

### Eguzkiaren eragina

Udako oporraldia amaitu da gehienontzat. Egun horietan eguzki asko hartuz gero, ez da sasoi onena era horretako depilazioa egiteko. Egun batzuk itxarotea komeni dela diote adituek. Izan ere, despigmentazioa pairatzeko arriskua sortu dezake. Bestalde, depilazioa egin ostean ere ez dute eguzkia hartzea gomendatzen.

## 6 AHOLKU ZURETZAT

- 1** Gorputzeko ilea denbora luzerako kentzen duen teknika da laser-depilazioa
- 2** Ilea ez da ateratzen edo erauzten; sustraia bera hiltzen da
- 3** Ez du minik egiten, azkura sortu ahal du gehien jota
- 4** Denbora pasa ahala, gero eta saio gutxiago egin beharko da
- 5** Udan eguzki asko hartuz gero, egun batzuk itxarotea komeni da
- 6** Depilazioa egin ostean ere ez dute eguzkia hartzea gomendatzen



## ILEAPAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK

**Cristina Agirre**  
• apaindegia •

**CA**

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

irailaren 4tik 30era 27,50€

**%50eko deskontua**  
Hidratazio sakon bidezko aurpegi-tratamenduan:

**PEELING-A, ANPOILA HIDRATATZAILEA, MASAJE ERLAXATZAILEA ETA MASKARA.**

Goienkale 16-1. esk • 48200 Durango  
Tel.: 94 681 73 80 • Mug.: 639 375 474



**Profesional onenak zure zerbitzura!**



# Inmobiliariak

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO

**AGENCIA INMOBILIARIA**  
**Fernando Uribe**  
Barrenkalea 15, behe • 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 94 681 66 66  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 94 681 40 49 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

## ETXEBIZITZAK ALOKAIURUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- ARTEKALEA: 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. 2 logela eta logela bakarrekoak. Trastelekuarekin. 140.000€ -tik aurrera.
- SAN IGNAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldia eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- DURANGO: 2 logela, egongela, komuna, sukaldia eta despentsa. Berriztatuko. 114.000€
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia balkoiarekin. Trastelekua eta garajea.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldia, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukaldia amerikarra eta egongela. Garajea itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldia amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukaldia-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldia balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### EUBA

- 3.000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lur zati, bakoitzean familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

### ABADIÑO

- Familia biko etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

### DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

## BASERRIAK SALGAI

### IZURTZA

- Baserrria salgai lorategi itxiarekin. Ortu eta lursailarekin. Durangotik 5 minutura.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.

- ABADIÑO, OTXANDIO, etab...

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldia, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelaxoa.
- ANTZO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldia, 2 logela eta komuna.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldia, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldia, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatuko. Halla, sukaldia, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukaldia jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldia, 3 logela eta komuna.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldia, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- KOMENTUKALEA: Halla, sukaldia, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldia, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
